

{ koaderno } **Garazi Goia**

Zein urrun gauden...

Duela bizpahiru hilabete, hauteskunderen atarian, “Partekatutako amatasun eta aitasun baja” deritzon lege berri bat onartu zuten Erresuma Batuan. Aitak edo amak, bietatik edonork, behin haurra jaio ostean berrogeita hamar asteko baja hartzea aukera dezake eta, are gehiago, denbora hori bien artean parteka dezakete, nahi duten moduan. Horrela esanda urrats garrantzitsua badirudi ere, tamalez oraindik pauso txiki bat baino ez da genero berdintasuneko utopia horren bidean, baldintza ekonomikoak ez dira eta bate-re erakargarriak. Izan ere, berrogeita hamar asteetatik berrogeietan, Gobernuak 140 liberako diru laguntza baino ez du ematen.

Suedian antzeko sistema bat jarri zuten martxan 1974. urtean (bai, 1974an), eta gurasoen ehuneko bostak baino ez zuen hartu. Gerora, amatasun eta aitasun baje in-guruko baldintzak eta mo-delo eredugarriak garatu eta ezarri dituzte; orokorrean, Eskandinaviako lurralde guztiak abangoardistak dira gai honetan. Adibidez, aitak berrogeita zortzi aste har ditake lanera itzuli aurretik, eta ia berrogei astez soldata-ren %80 jasotzen du. Norve-gian, legez, aita lau asteko baja hartzera behartuta da-go; noski, soldata osoa man-tenetzen da denbora horretan zehar.

Amatasun bajaren eta emakumeek aktibitate ekonomikoan duten partaidetza-ren arteko lotura aztertzerako orduan, berriro ere Es-kandinavian eta, batez ere, Norvegian aurrerapauso handiak eman dituzte. Gobernuan berdintasun zuzen-daria izan zenaren, Arni Holen, aipu batzuek atentzioa eman didate: «Berdintasunak badu osagai moral bat, baina funtsezko arrazoia ekonomikoa da. Ekonomia moderno eta lehiakor batek buru eta esku hoberenak behar ditu, zein sexutakoak diren begiratu gabe. Ezin dugu talentu handiko jendea galdu. Norvegian inor ezin da sentitu behartuta bere familia eta ibilbide profesio-nalaren artean erabakitzea. Hori hemen oinarritzko ba-lore bat da». Aipagarria da Norvegian hamar urtez behe-rako seme-alabak dituzten emakumeen ehuneko laurogeiak lan egiten duela. Izan ere, hala nahi izanez gero, emakume batek berrogeita bederatzi aste har di-

tzake soldata guztia kobratuz, edo berrogeita hemeretzi aste soldataren %80 kobratuz. Inolako zalantzarik gabe, amatasuna errazten duten baldintzak dira horiek guz-tiak, lanerako itzulera motibazioz hartzea eraginez. Zu-tabe batean irakurri dut, horrelako sistema batek fun-tzionatzeko ezinbestekoa dela jendeak sentitzea gizartea banaketa zuzen batean oinarritzen dela. Aukera berdinak ematean bai aitari bai amari, kolektibismo orokorraren eta askatasun indibidualaren artean oreka mantenduz. Politikak testuinguru horretan betetzen duen zeregina, noski, oso garrantzitsua da; eta, antza, Eskandinavian, herriak politikoengan uste osoa du.

Zoritxarrez, hori ez da leku gehienetan errepikatzen den egoera: munduan 830 milioi emakumek ez daukate babes egokirik haurdunaldian eta amatasun baje zehar. Ekitaldi batera gonbidatu ninduten duela gutxi; unibertsitate ikasketak aukeratzeko atarian zeuden nes-

Emakume izateagatik zein oztopo izan dituzu zure ibilbidean? Gizonezkoak gailentzen diren testuinguru batean nola sar naiteke? Emakume izateagatik baztertuta sentitu zara inoiz?

kei aholkuak ematea helburu zuen ekitaldi batera. Ema-kume izateagatik zein oztopo izan dituzu zure ibilbide-an? Gizonezkoak gailentzen diren testuinguru batean nola sar naiteke? Emakumea izateagatik baztertuta senti-tu zara inoiz? Galdera horiek egin zizkidaten, 2015. urte-an, eta Londresen. Politikariekiko konfiantza kontuan... hor ere zenbat bide daukagun oraindik egiteke.

(Beste esparru batera joz, ez da kasualitatea Eskandi-naviako lurraldeetan hezkuntza eta kultura sistema erreferenteak izatea. Zutabe hau idazteko informazioa-ren bila nenbilela, irakurri dut hamabost urteko hau-rren lautik hiruk onartzen dutela egunero irakurtzen dutela, euren inizatiba propioz, atsegin dutelako soilik. Nahiz eta zutabe goi nagusiari lotuta ez egon, aipatu beharra sentitu dut, baina beste zutabe batean mamitu-ko ditut horren inguruko gogoeta batzuk) •